



## ATZEOZ AUERRERA

Maite Alustiza Donostia

Jon semearengan pentsatuta, hizkuntzaren inguruko gogoeta bat egin du Beatriz Fernandez sintaxilari eta EHUKo Hizkuntzalaritza irakasleak (Portugalete, Bizkaia, 1964). *Euskara eta hizkuntzari buruz, hizketan semearekin argitaratu berri du, Erein argitaletxearekin. Antton Olariaga izan du irudigile.*

**Surflari bat Lego pieza baten gainean dabil, liburuen azalean. Zer ikusi du horrek hizkuntzarekin?**

Etxeko gaztea, semea, surflaria da, surfzale porrokatua; eta liburuan, surfaz ere hitz egiten dut tarteka. Legozalea ere bada. Esango nuke hor hizkuntza Lego bat dela, metaforikoki, behintzat. Sorkuntza prozesua Anttonen esplikaturiko liguke hobeto, baina hori da muinean.

**Ikasle trebeenek zientziak aukeratzeko omen dituzte, eta gainerakoek, letrak. Uste hori ez da oraindik gainditu?**

Ikasle trebeenak zientzien adarrean daudela nahiko uste zabaldua da. Ni letretakoa izan nintzen; egia esan, ez geneukan fama onik, eta, ikusten dudanez, orain ere ez daukagu. Hizkuntza aztertzeari alferrikako deritzote batzuek, eta beste batzuek, asperrak. Batxilergoa beharbada ez da garai onena esperimentaziorako, gure ikasleek selektibitatea edo baxoa dutelako gero, baina egin behar da. Irakasleek ere badaukate nahikoa bere ikasleak portu onera eramateko ahalegin horretan.

**Hizkuntza aztertzea miresgarria da zuretzat: berriak sortzen dira, nahasturak edo pidginak egin, hizkuntzak gald... Zer da gehien erakartzen zaituena?**

Ni sintaxilaria naiz, eta egia da sintaxia ez dela gustu guztietarako. Sintaxian ere zaletu ditzakezu gazteak, baina badaude beste hainbat alderdi zoragarri: haurrak nola jabetzen diren hizkuntzaz, zer gertatzen den haien garunean; edo, adi-



GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

## «Hizkuntza aztertzeak desafioak sortzen dizkio norberari»

**Beatriz Fernandez • Sintaxilaria**

«Hizkuntzetan zaletzeko abagunea» eman nahi die gazteei Fernandezek, euskarari eta oro har hizkuntzari buruz argitaratu duen lanean. Kateatu daitezen, «ondo jositako amaraun bat» osatu du.

bidez, hizkuntzaren sorreraz, tximinoek hitz egin dezaketen edo ez, eta ezin badute hitz egin, zergatik... Pidginarena ere zoragarria da; dokumentatutako kasuak dira. Hizkuntzarekin zenbat gai jorratu daitezkeen... Etxeko gaztea ez da hizkuntzalarria izango, ziur nago; gazte asko ere ez, baina gutxienez beharbada estima handiagoa izango diote hizkuntzak aztertzeari, orain arteko irakaskuntza sistemak eskaini diena baino. Hizkuntza aztertzeak desafioak sortzen dizkio norberari. **Liburuan azaldu duzu hizkuntzek**

**eraikinetik asko dutela, eta haien diseinua eta ederra irakatsiko zenezkiela gazteei. Nola?**

Arkitekto batek berak sortzen ditu diseinuak, baina hizkuntzalaririk ezin dugu hizkuntzaren diseinua sortu. Guk egin behar duguna da diseinu hori zein den igarri, eta horren zailtasunak aztertu. Gramatikak Lego hori eraikitzeko jarraibideak eskaintzen dizkigu.

**Gazteei idatzi diezu, zuzenean haien hitz eginez. Nola egin duzu haiek katea daitezen?**

Abiapuntua semea da, noski, eta se-

mearen gustuak, gazte askorenak direnak. Rockzale amorratua da, eta rocka entzun eta entzun jardun nuen urte oso batean, aukeratzeko ea zer kantu eta zein banda aukeratu nuen! Nik esango nuke haiengana hurbiltzeko modu bat dela haien entzutea, zer gustatzen zaien. Horietatik abiatzea izan dut estrategia, ez dezaten liburua alde batera utz. Batez ere adin honetako [18 urte] gazteen kasuan, beharrezkoa da. Badaude literatura erreferentziak, zinema, arkitektura, boxeo... Ondo jositako amarauna da, eskapa ez daitezen.

**Semeak irakurri al du?**

Bai. Asko gustatu zaizkio, esango nuke nik, bere amaren testuak baino gehiago, Anttonen irudiak. Beste pare bat gazte ere badira irakurri dutenak, eta adinagokoe ere bai.

**Dienez, ez da gauza bera zure belaunaldikoe euskara batuarekin duten harremana eta egungo gazteek dutena. Zer aldatu da?**

Unibertsitatean oso talde handiak ditut; Euskal Herri txiki bat da, denetarikoz sorterririk dituzten ikasleak batzen dira. Batzuk badira tokian tokiko hizkera dutenak; eta beste batzuek, beharbada, ez dute berezko hizkerarik. Hor ikusi dut, batez ere hizkera dutenen kasuan, ez nuke esango arbuioa, baina euskara batuarekin badute halako amodio-gorrotto harreman arraro samar bat. Hizkerari eutsi nahia eta norberaren hizkeraren aldarrikapen hori hizkera nazionalaren kaltetan ikusten dut. Egia da badagoela belaunaldi aldaketa bat. Estandarra badaukagu, beharrezkoa dugu, baina horrek ez du esan nahi hizkeren ere euren lekua ezin dutenik izan. Kontua da hizkerak non agertu; gangsterrak batuan hitz egiten, bada, ez. Gero, beste kasu batzuetan ikusten dut euskaltzain bat daramatela bihotzean; hau da: «Hertsiki lotzen ez zaiona arautegiari, akabatu dezagun». Baina egia da gazteek beharbada ez daukatela euskara batua sortu zutenen beharra eta grina.

### LOTSABAKO

**Gustuko hitz bat?** Ihintza.

**Sintaxilaria ez bazina, zer?** Hizkuntzalarria, baina beste eremu batekoa.

Mundu ideal batean, literatura argitaletxe bateko editore.

**Telesail bat?** Peaky Blinders.